



GURUTZ-BIDEA

**Prantziskotar
Porto-Maurizioko
LEONARDO DEUNAK**

**Italeraz idatzi zuanetik
bere Anai**

**JOSE MARIA AZKUE
Aita-praileak eratua**



**Tip. de Aranzazu
1923**

DTU

25623



M- 17773 / R- 29315

ATV

21623



GURUTZ-BIDEA

Frantziskotar
Porto-Maurizioko
LEONARDO DEUNAK
Italeraz idatzi zuanetik
bere Anai
JOXE MARIA AZKUE
Aita-praileak eratua



Tip. de Aránzazu
1923.



**¡Nere Jaungoikoa ta nere
zei guztia!
Nere gogapenik nagusie-
na Jesusen Pasio deuna da.**

(San Frantziskoren itzak)



ALDARE NAGUSI-AURÉAN

Gurutze Santuaren...

Damu-Otoia

Nere Jesus erukioña, nere Jaun eta Ontasun guztia. Gauz guztiak baiño geiago maite zaitut, eta azken gabe ona ta Biotz-bera zeralako, Zuri ainbeste oker egiñaren damu naiz; ni pekatari onegatik egin zenduan nekebidea gogañtuaz, orain egitera noan bidea eskeintzen dizut, eta emanda dauden barkapenak irabazteko asmoa det. Zure gogokoa bada Garbitokiko animen alde izan bitez. Ta apalki eskatzen dizut, bizi-toki onetan zure erukia ta Zeruan betiko Aintza *Gloria* irixteko izan dedila. Amen.





LENENGO EGONALDIA

*ŷ. Goraltzen zaitugu, Kristo, ta do-
nesten zaitugu.*

*R. Zure Gurutze Santuaz gizadia
gaizkata deŷulako.*

Jesus ilgari etsia.

Gogaŷtu ezazu Jesus onak arantz-
ezko estuna buruan zuala, ta dana
odolduta, nola eriotzazko epai gaiz-
toa aŷtu zuan, eta esazu:

Nere Jesus maitea! nolako maita-
sun aundia dan zure ori! Ni bezelako
eskeŷ gaiztokoagatik aztindua pŷan-
ko ta ukabilkoak aŷtu dituzu, eta az-
kenik eriotzik lotsagaŷienaren epa-
ia. Aski da au nere biotza zauri-
tzeko ta zure oñazeen soŷpenak izan
diran nere pekatuak goŷotatzeko.
Nere gaizkiak goŷotatzen ditut bada,
Jauna, auek egiñ izanaren damu naiz,
eta neke-bide onetan enaiz aspeŷtuko
esaten: *nizaz eŷuki zaite, Jesus,
nizaz eŷuki zaite*

Aitagurea, Abemaria ta Gloria.



BIGAÑEN EGONALDIA

Ÿ. *Goraltzen zaitugu...*

R. *Zure Gurutze...*

Jesusi Gurutz'aztuna artu-erazo diote.

Gogañtu ezazu nekez eta oñazez leñtutako Bildots otzan-otzana dan Jesusek nola Gurutze deuna artu ta besařkatzen duan, eta esazu:

Neri dagokit, ene Jesus, ez zuri, neri baizik gurutze aztun ori. ¡A! zer aztuna dan nere pekatuz egin dizudan Gurutza. Nere txařkeriak irabazi didaten nekezeko gurutza artzeko beař dedan indařa emaidazu, Erosle maite ořek, gurutzakin laztandurik bizita gero, zeruan Zurekin beti atsedan nadin. Eskař au iritxi ařte Teresa doneakin esango det: *nekaldu edo il, nekaldu edo il*. Amen.

Nizaz eruki zaite, Jesus, nizaz eruki zaite.



IRUGAÑEN EGONALDIA

V. *Goraltzen zaitugu...*

R. *Zure gurutze...*

Gurutz-pean lenengo aldiz erortzen da Jesus

Gogañtu ezazu zigortzale gogor
biotz gabeko aiek makilaz eta ostiko-
ka nola ibiliko zuten, eta esazu:

Nere Erosle maite-maitekoñ! Zure
oñetan auzpezturik daukazu luñ-ga-
ñean dan pekataririk aundien au.
Zenbat aldiz gaiztakerizko leizara
amildu ote-det nere buru au! Zure es-
ku altsua emaidazu añen jaiki nadin.
Lagun zadazu, nere Jesus, pekatu la-
ñian geiago erori ez nadin eta eriotz
aldian betiko gaizkapena iritxi de-
zadan. Amen.

Nizaz eruki...



LAUGAÑEN EGONALDIA

V. Goraltzen zaitugu . . .

R. Zure Gurutze. . .

**Gure Erosle Jesusek
bere Ama Deuna arkitzen du.**

Gogañtu ezazu nolako oñaze bizia izango zan emen Jesusen Biotza zaurituko zuan oñazea! Nolako atsekabe latza Ama Deunaren biotza leñtuko zuan atsekabea! Atsekabeok soñtu dituan pekatua goñotaturik, damuaren damuz esazu:

Mariaren Seme-Jaungoikoa! Nere Jesus maitearen Ama Deun-deuna! emen naukazute zuen auñean auzpezturik. Zuen bulañ samuñak erñdibitu dituan ezpata zoñotza pekatuz nero-nek egin dedala aitoñtzen det. Baiña egi-egiz damu naiz eta bañkapena eskatzen dizutet. Nizaz erñki zaite, Jesus: nizaz erñki zaite, Ama erñkioñra. Amen.

Nizaz erñki...



BOSTGAÑEN EGONALDIA

V. Goraltzen zaitugu. . .

R. Zure Gurutze. . .

**Jesusi Gurutza eramaten Zyreneko
gizon batek lagunzen du.**

Gogañtu ezazu Jesusen gurutza gogoz edo beaíez eraman beaí duan Zyreneko gizona zerori zerala, lurreko atsegin igestiak zure biotza lotua daukate-ta. Lotsaturik esaiozu ba:

Ene Jesus maitekoña! mila eskañ zuri, oñenbeste irabazpide ematen didazulako. Bizitoki onetako atsegin zirtzilok alde batera utzi ta gaitzaren antza duan guztia gogo onez añtu ta eramanda gero, egizu añen Zeruko aberastasunak irabazi ditzadala. Amen.

Nizaz eruki...



SEIGAÑEN EGONALDIA

V. Goraltzen zaitugu. . .

R. Zure Gurutze. . .

**Jesusen arpegi odoldua
Beronikak zapi batez garbitzen du.**

Jesusen arpegiaren irudia zapiak
artuta gelditu zala gogartu ezazu,
eta zure biotzean maitasunaren inda-
rez irudi ori ezañi ezazu. ¡Zorionekoa
irudi ori biotzean dezula bizi bazera!
¡Zorionekoa oñekin iltzen bazera!
Ongi aundi au irixteko, esazu:

Ene Erosle oñazetua! Ezañi zaiozu,
añen, zure arpegi deunaren irudia ne-
re biotzari, egunez eta gabaz, beti
zure nekaldi gogoña gogoan ibilita,
egin ditudan okeñ izugarrien damu
izan nadin. Onela bizitoki onetan ne-
re pekatuen damu-ogiaz burua indar-
tu ezkerro, Zeruan zure arpegi edeña
ikusteko atsegiña izango det. Amen.

Nizaz eruki...



ZASPIGAÑEN EGONALDIA

Ḃ. Goraltzen zaitugu. . .

R. Zure Gurutze. . .

**Gurutz-pean Jesus bigaren aldiz
erortzen da.**

Gogañtu ezazu Zure Jauna luñean
azpiratuta, nekeaz leñturik, etsaien
ostiko-pean, eñi-oztearen iseka ta
txañkeriak añtzen nola dagoan, eta
kupitasunik aundienaz auxe esaiozu:

Ene Erosle Deun-deuna! Luñean
erorita bazaude ere Algustiduna ze-
rala aitoñtzen det. Nere aundikeria,
aundiustea ta buruaren zalekeria,
azpiratzeko *grazia* emaidazu, añen,
apala izanik, ezetsiak eta txañkeriak
gogo onez añtu ditzadan, eta onela
zuri eroñtze-nekeak arinduaz, Zeru-
ko atsegiñetara igaro nadin. Amen.

Nizaz eruki...



ZORTZIGAREN EGONALDIA

Ṽ. *Goraltzen zaitugu. . .*

R. *Zure Gurutze. . .*

**Jesusek Jerusalem'go emakumeen
nagara arintzen du.**

Jesusgatik, negar-egiteko gai aundiagoa zeroŕek dezula gogaŕtu eza-zu, Jesus Ona zugatik nekatzen data. Baita zure buruagatik ere negar-egiteko gaiarik asko badezu, olako oñaze biziak zure pekatuak ematen dizkiote-ta. Damutu zaite bada ta biotz-biotzez esaiozu:

Ene Erosle maite-maitekoŕa! Oŕen-beste oñazetan nigatik zaudela ikusita ęzeŕgatik ez ote-da nere biotza negaŕez urtuko? Damu-negaŕak emaizkidazu, aŕen, Jauna, emakume aiekiko euki zenduan eŕukia iritxi dezadan. Eskatzen dizudan atsedena emaidazu, bizi-toki onetan Zuk ni eŕukiz begiratu-ostian, eriotza igarota Zeruan ikusi zaitzadan. Amen.

Nizaz eŕuki...



BEDERATZIGAÑEN EGONALDIA

Ḃ. Goraltzen zaitugu. . .

R. Zure Gurutze. . .

Jesus Gurutz-pean irugañen aldiz erórtzen da.

Nolako erórtze oñazekoña gure Jesus maitearen erórtzea! Begira otso zañ aiek Jesus-Bildots otzanari nolako amonua ekiten dioten. Esaiozu ba negañez:

Zeru-luñak beatz batez darabiltz-kizun Jaun Algustiduna ¿noñk erori-erazo zaitu luñera indaíngabetua? Nik nere pekatuz, nik nere sañitako erorpenaz erori-erazo zaitut, eta pekatutik pekatura ibilirik Zuri atsekabea geitzen bizi izan naiz. Baiña nere utsegiteak aitórtzen ditut, auek egiñaren damu naiz, ez beñizteko asmoa badet, eta biotzez, bein da mila aldiz esango dizut: pekaturik ez geiago, Jauna, pekaturik ez geiago. Amen.

Nizaz eruki...



AMARGAREN EGONALDIA

V. Goraltzen zaitugu. . .

R. Zure Gurutze. . .

**Jesus-Eroslea erantzten dute,
ta beazuna edaritzat ematen diote.**

Begira, nere anima, pizti gaizto
aiek gure Jesus Ona nola erantzi zu-
ten. Soñekoa goñputzari itxasita zeu-
kalako azal ta odol-zatiak goitik be-
raño kendu ziozkaten, goñputz osoa
zauri goñ egiñik ageñtzen zala. Ta
gañera beazunez mindu zuten. Eñu-
kiz ta damuaren damuz esaiozu:

Nere Jesus nekaldua jñolako alda-
kuntza Zugan ikusten dedan ori! Zu,
Jauna, bilosik, odolez, zauriz, oñazez
beteta, ni beñiz atsegiñez, uskeriz ta
pozaz. Eznabil ondo, Jauna, ez nabil
ondo. Egiazko bidea zeran Oñek nere
bizikera txañau aldatzen lagundu za-
dazu, auñerakoan zure nekaldiaren
samintasunak gozartuta Zeruan Zu-
rekin alkarñtu nadin. Amen.

Nizaz eñuki...



AMAIKAGAREN EGONALDIA

V. Goraltzen zaitgu. . .

R. Zure Gurutze. . .

Gurutz-egurean iltzez josten dute.

Gogañtu ezazu nolako oñaze gogor-
ra artuko zuan Jesus Onak bere es-
ku-oñak iltze zorotzez zauritzean;
eta nolako atsekabea Amarena Se-
mea ala ikusirik, ezaguera gabeko i-
zakiak berak ere negar egin zuten
da. Beintzat zure damutasuna negarrez
ageratu ezazu, Jaunari auxe esanaz:

Nigatik iltzez josia izan zerañ Je-
sus erukioña ¡Zure maitasun eta bel-
duñezko iltzeaz nere biotz au zauritu
zadazu, eta zure esku ta oñak zauritu
dituzten iltzeak nere pekatuak izan
diran ezkerro, zure maitasuna ta bel-
duña nere griñak azpiratzeko bideak
izan bitez, zurekin luñ-gañean iltza-
tua bizita gero, zurekin zeruko a-
tsegiñetan *erege* izatera eldu nadin.
Amen.

Nizaz eruki...



AMABIGAÑEN EGONALDIA

V. Goraltzen zaitugu. . .

R. Zure Gurutze. . .

**Gurutzean Jesus jasoten dute
ta Erosleak bere Anima ematen du**

Begiak jaso itzazu, kristaua, eta begira Jesus Ona iru iltzez josita zintzilik; begira il-lafietan Bere arpegia; begira nola gaizkileai barkatzen dien eta nai duanari zerua agintzen dion.

Ene Erosle maite-maitekoña ¡Zuri bizia kendu dizuten irale gaiztoak nere pekatuak izan dirala aitortzen det. Baiña Gurutze oretan Zure arerioen barkapena Zerori entzun ezker, nolako indarra ta itxaropena nere biotzak artzen duan. Barkapena erakusten badidazu, emen nago zure naia egiteko. Bai, nere Jesus; nere etsai guztiai barkatzen diet, eriotzako orduan entzun dezadan: *gaur zeruan nere lagun izango zera*. Amen.

Nizaz eruki...



AMAIRUGAÑEN EGONALDIA

V. Goraltzen zaitugu. . .

R. Zure Gurutze. . .

**Gurutzetik Eroslea eratsi, ta
Bere Amaren besoetan ipintzen dute**

Ama garbiaren biotza nolako ezpata zofotzak erdibituko zuan gogañtu ezazu, besoetan bere Semearen Gogputza añtu zuanean. Bere oñaze guztiak antxe beriztu zitzaizkan Ama Deunari auxe esaiozu:

Martirien Andre kementsua! nolako atsekabezko itxasoz inguratuta dagon zure biotz ori! Zuri laguntzeko diñ eznaiz, nere pekatuakgatik erdibitu du zure biotza atsekabezko ezpatak-eta. Baiña, ene Maria, Zure eruki ori nere alde erabilzu, nere itxutasuna ezaguturik, pekatu egiñaren damu izan nadin, zure atsekabetan Zure lagun emen izan ezkerro, Zeruan ere atsegiñetan zure lagun izango naiz. Amen.

Nizaz eruki...



AMALAUGAÑEN EGONALDIA

Ÿ. *Goraltzen. . .*

R. *Zure Gurutze. . .*

Jesusen Gorputz Deuna il-obian sartzen dute.

Il-obia itxi ezkerro nolako negařak egingo zituzten Jesusen Jařaitzale guztiak gogařtu ezazu. Baiņa zenbateko atsekabea izango ote-zan Ama Deunarena, bere Seme atsegin-kořa il-obian luřaldua laga beař izan zuanean! Il-obiaren auřean auzpezturik, negař-samiņez Jaun ilari esaiozu:

Nere Jesus erukiořa! Gurutz-bide onetan gogařtu dedan Zure Nekauste Deunaren bidez ekatzu, ařen, nere azken-jakia Zure Gorputz Deuna izan dedila; nere azken-itzak Jesus eta Maria; eta nere azken-arnasa Gurutzean eman zenunakin bat egin dedila: alako eran, sinismen biziaz, itxaromen sendoaz ta maitamen sutuaz Zugatik il, eta aldioro Zurekin zeruan bizi nadin. Amen. *Nizaz...*

Egon-alditik egon-aldira **Abestu litezke.**

Jesus gure Jaun maite
Guztiz maitetsua.
Damu degu guztio
Zu naigabetua.

Josirik ikustean
Gurutze oñetan Zu
Erukiz ¡A! biotza
¿Noñk uratuko eztu?
Baita baleuka ere
Añi biurtua.
Damu...

Burutik oñetara
Goñputz edeñ ori
Zauri bat egiñikan
Dezu guztiori:
¡Ai zorigaiztokoa!
Gure pekatua.
Damu...

Jesus Zu gure bila
Ta guk iges Zuri
Gure beaŕ zerala
Zu, Jauna, dirudi.
¡O zein eskeŕgabea,
Kristau zoratua! *Damu...*



**Bost Aitagure Jesusen Zauriri
Aldare nagusi-aŕean.**

Nihil obstat

Fr. José Román Zulaica

Imprimi potest

Fr. Antonio Urquiola

M. Prov.

Nihil obstat

Lic. Petrus de Anasagasti

Censor.

Imprimatur

Vitoriae 20 septembris 1922

Dr. Joseph Leontius O. de Zarate

Vicarius Generalis.



